

# Conseil Municipal du 04/07/2019

## 2019ko UZTAILAREN 4ko HERRIKO KONTSEILUA

Hor zirenak: BARBIER, ETCHEVERRY, ECHEVERTZ, ETCHART-DUHALDE, OXARANGO andereak eta GASTAMBIDE, BISCAY, ETCHEBERRY, HERNANDEZ, SOULIGNAC jaunak

Ezin etorria jakinarazia zutenak: GARY anderea eta BARNECHE jauna

Ahalordea eman duten ezin etorriak: ETCHEGARAY jaunak (ahalordea ETCHEVERRY andereari)

Aiherrako Herriko Kontseilua 2019ko uztailaren 4ean bildu da, Herriko Etxeko Biltzar aretoan arratseko 20:30etan eta honakoak erabaki ditu.

### **1. Hazparnealdeko herri arteko Tokiko Hirigintza Planaren onespena**

Lehenengo Hazparnealdeko Herri Elkargoak herri arteko Tokiko Hirigintza Plana bere eremuko herrien artean osatzea deliberatu zuen 2015eko abenduaren 17an.

Alabaina, 2013an Aiherrak bozkatu zuen THP-ak Frantziako Grenelle legearen eta hirigintza legeetan eman ziren aldaketak kontuan izan behar zituen nahitaez.

Lehenengo Herri Elkargoak Tokiko Hirigintza Planaren eremuko herriekiko hitzartze eta elkarlanerako baldintzak finkatu zituen.

Euskal Hirigune Elkargoa sortu denetik elkargo berri honek du Hazparnealdeko Herri Elkargoak abiatu zuen THP-aren gauzatzeko ardura hartzen.

2017 urtean zehar, Ipar Euskal Herriko LKE-k (Lurralde Koherentzia Eskema/SCOT) eta Frantziako hirigintza arauak finkatu irizpideak segituz, aitzin-zedarritze lan bat egin zuen lurralde eremuko herriekin hitzarturik.

Lege eta arauzko hertsapenek erabil daitezkeen azalerak mugatzen eta herrien artean parteka litezkeen etxebizitzaren kopurua finkatzen dituzte. Eremu eraikigaiak sare elektrikoa, errepideak eta ur ontze sare kolektiboak behar dituzte lehentasunez.

Geroari begira eraiki daitekeenaz, herri arteko THP-aren helburua da jadanik eraikiak diren eremuetako lur sail libreak erabiltzea (sail huts isolatuak, sailen zatikatzea), laborantza lur gehiago kontsumitzea baino. Beste helburuetako bat baliatuak ez diren etxebizitza hutsak erabiltzea da.

2016ko abenduan 3 bilkura publiko egin ziren diagnostikoaren eta AGIP-aren aurkezteko, eta 2018ko uztaileko bilkuretan Antolamendu eta Programazio Norabideak (APN/OAP) eta zedarriztatzearen lehen elementuak aurkeztu ziren.

2019ko maiatzeko bilkuretan behin betiko zedarritzea geletan afitxatu eta aurkeztu zen APN eta arau idatziaren norabide nagusiekin batera.

Eraikigaiak diren eremu handiei dagokienez (AU eremuak) herri bakoitzean irizpide anitzeko analisia egin da urbanizazioari loturik, jokagaiak eta hertsapenak identifikatzeko (laborantza, erliebea, natur eremuak, eta abar).

Kopuruei dagokienez, herri arteko THP-ak 1 600/1 700 biztanle gehiago iragartzen ditu 10 urteren buruan ( gehienez 120/130 Aiherran 70/75 etxebizitzarekin). Hedatze urbanoari loturiko eremuen kontsumoaren eta dentsifikatze eta berriztatze potentzialaren arteko erlazioak AGIP-arekin bat egiten du.

Herrien arteko banaketa lurraldearen egituraren arabera da.

### **Ikus A-B zedarritzearen zenbakiak**

Mapa grafikoari dagokionez, lurraldea hainbat eremutan zatitua da:

1. U eremua: jadanik urbanizatuak edo eraikiak diren sektoreak (sareak badira, ur sanotze partikularrak onar daiteke baldintza batzuetan) eta eraikuntza berri gehiago hartzeko gaitasuna duten ekipamendu publikoak dituzten edo egiten ari diren sektoreak
2. AU eremua: urbanizaziora bideratuko diren sektoreak, bertan edo hurbil sareak dituztenak, egokituak ala ez. APN-ek eta araudiek dituzte antolamendu eta ekipamendu baldintzak finkatzen.
3. N natur eremua: natur eremuak (oihanak, errekek, eta abar) + existitzen diren eraikuntzak
4. A laborantza eremua: laborantzarako beharrezkoak diren eraikuntza eta instalazioak + existitzen diren eraikuntzak

### **Ikus Aiherra C-D planoa**

Idatzizko araudiak eremu bakoitzari dagozkion arauak zehazten ditu: eraikuntzen kokapena, dentsitatea, eraikuntzen itxura, goratasuna, sareetarako loturak, eta abar.

Araudi horren idazteko AHIA-rekin (CAUE) lan bat eginga izan da, bereziki Ipar Euskal Herriko eraikuntza eta hirigintza tradizionalak aztertuz.

Arreta berezia eman zaio eraikuntzen kanpoko itxurari: horma xuriak, aitzinalde nagusia, gehienez 2 ate-leiho alde bakoitzean, kanpoko leiho tradizionalak, terraza-teilatuak oso mugatuak

A eta N eremuei dagokienez, herri arteko THP-ak hirigintza multzoetatik kanpo eta laborantzarekin zer ikustekorik ez duten eta existitzen diren eraikuntzak kontuan hartuko ditu. Etxebizitza hauek handitzeak eta eraikuntza atxikiak haizu izanen dituzte (garajeak, baratze etxolak, igerilekuak, eta abar)

### **Ikus E orria**

Sektore bakoitzeko, eraikigaiak diren eremuen antolamendu printzipio nagusiak zehazten dituzte "etxebizitza" APN-ek. Hemen duzue APN adibide bat.

## **Ikus APN F planoak**

### Laborantzarako antolamendu eta programazio norabideak

- Balio agronomiko handiko lurren zaintzea

*Helburua da lur horien laborantza izatea segurtatzea, izate hori kolokan ezar lezakeen urbanizazioaren edo bestelako proiektuen aurrean (urbanizazioa, azpiegiturak)*

- Hazkuntza laborantzaren zaintzea

*Hazkuntza laborantzaren zaintzeko larre eta pentzeak zaindu behar dira, lur horietan "borda" motako eraikuntzak lehenetsi eta hazkuntza produktuen bilakatzeko eta saltzeko jarduerak bultzatu.*

- Laborantza eremu eta hiri eremuen arteko erabilpen gatazkak murriztu behar dira *Laborantzarako bide eta sarbideak atxiki behar dira, laborantzarako eraikuntzen eta etxebizitzaren arteko hurbiltasuna mugatu eta hiri eremuen eta landa eremuen arteko trantsizio eremuak bultzatu*

- Laborantzarako eraikuntzak natur eta hiri paisaietan integratu behar dira
- Laborantzaren dibertsifikazioa

*Laborantza-produktuen bilakatzeko eta biltegitratzea, salmenta, aktibitateak eta ostatua*

Hazparnealdeko lurralde eremua osatzen duten herriek dute gai hauetaz iritzia eman behar.

Euskal Elkargoak 2019 uztailaren 20an bozkatuko du herri arteko THP.

Bozkaren ondotik, txostena herritarren eta besteen eskura izanen da.

Parte hartzen duten egitura publikoek (DDTM, laborantza ganbera, LKE eta abar....) ere beren iritzia eman behar dute urrian iraganen den inkesta publikoa aitzin (momentu inportantea da, herritarrek beren iritzia eman dezaketelako). Ondotik herrietara itzuliko da beste bozka batentzako eta 2019ko abenduan azkenik Euskal Elkargoko Batzordeak bozkatuko du.

Auzapezak zehazten du hirigintza dokumentu hori beste herrietako hautetsiekin batera egin dela eta hori ez dela beti gauza erraza izan. 10 urterako indarrean izanen da eta aitzinekoa baino osoagoa izanen da (bereziki araudia).

Besteak beste, N eta A eremuetan aukera berriak izanen dira handitzeak eta eraikuntza erantsien egiteko.

## **2. Seinale panelen eskaera**

Panel mota eta grafismoaren hautatzea-Herriko kontseiluak eta toponimia batzordeak egin hautua:

Gibel aldea: Lastoa

Letrak eta marrak: Beltza

Minuskulak (salbu auzoen izenak letra LARRIZ).

"Vasca" letra tipoa auzo izenentzat

Panelen egiteko eta ezartzeko lehen eskaera eginen dugu herriko bide, departamenduko errepide eta auzo izenentzat(75 ale)

Bigarren eskaera bat eginen dugu herriko bideentzat (50 ale)- gure zerbitzuek ezarriko dituztenak-

Ukan ditugun lehen aurrekontuen arabera, kostua 12000€ ingurukoa izanen da Euskal Elkargoaren laguntza kendu eta.

### **3. Bestelako gaiak**

- Elixaldeberriako etxebizitzaren alokatzea: araudia eta egutegia -ikus erantsia den dokumentua- eskaerak udazkenean.
- Elgar Oinka dantza taldeak Denen Etxeko gela handiaren baliatzeko eskaera - herriko kontseilua ados-
- Harrobiaren antolatzeko ikerketaren lehen elementuak. Armand David Lizeoarekin egin bilkuraren ondotik, lehen zedarritzea egin da eta lehen irudi bat (eskola sartzearen ondotik).

Saioa 22:15etan bukatu da...